

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES**

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 895.000 euro jarri ditu 2012an udalen kultur jarduerari laguntzeko

Hiru deialdi sustatzen dira: antzerki Sarerako laguntzak; Arte eta Kultura programako kultur jarduerak egiteko; eta jarduera artistiko eta kulturalak elkarrekin antolatzeko

Viernes, 09 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuak laguntzen deialdia egin du 2012an udalen kultur jardueretarako, horretarako 895.000 euro jarritz.

Kopuru hori hiru deialditan banatzen da: "Nafarroako Antzokien Sarea" deialdia; diru-laguntzen deialdia Arte eta Kultura programa osatzen duten kultur jarduerak egiteko; eta jarduera artistiko eta kulturalak elkarrekin antolatzeko deialdia.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia-k deialdi horiek aurkeztu ditu prentsaurrekoan eta, harekin elkarrekin, Kulturako zuzendari Ana Zabalegui Reclusa eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Mariano Herrero Ibáñez izan dira.

"Nafarroako Antzokien Sarea" deialdia

"Nafarroako Antzokien Sarea" deialdiaren xedea da talde profesionalen arte eszenikoen programazioari laguntza ematea da Nafarroako udal-titularitatekoa den gunen eszenikoetan, eta 2011ko azaroaren 3tik 2012ko azaroaren 4ra egindako ikuskizunen programari eragiten diote. Laguntzen onuradunak izateko Nafarroako Antzoki Sareko kide izan beharko dute 2012-XII-31n, edo bestela, espazio eszeniko baten titularra den Nafarroako udal bat izatea; azken horrek barnean dauden udalak betetzen dituzten baldintzak bete beharko ditu. Laguntza horiek ere jaso ahal izango dituzte, udalaren aginduz gunen eszeniko bat kudeatzen duten tokiko erakundeek. 471.000 euroko aurrekontu-partida bat dago konpromiso horiei aurre egiteko.

Kontseilariak adierazi duenez, kopuru hori iaz emandakoa baino % 25 gehiago da. Azaldu duenez, era horretan baliabideen eraginkortasuna handitzen da, azpimarratzean laguntzak jarduera berari eman behar zaizkiola kudeaketa-gastuei eman baino lehen.

471.000 euro horiei, gainera, Nafarroako Antzoki Sarea kudeatzeko erabiliko diren beste 70.000 euro erantsi behar zaizkio, eta horrek deialdia 541.000 eurora igotzea dakar.

Onartutako aurrekontua eskaeren baremoa egitean lortutako puntuazioaren arabera finkatuko da, eta diruz lagunduko da soilik arte eszenikoetako profesionalen zati batek ikuskizunen kontrataziotik

sortutako gastua, bai eta egile-eskubideen kontzeptuan ordaindu behar den gastua ere. Laguntzak, gehienez ere, kontzeptu horietan egindako gastuaren % 80koak izango dira.

Kanpoan geratzen dira, hala ere: garraio, janari eta ostatuko gastuak, ikuskizun baten osagarri diren ikastaro, tailer eta hitzaldiak, tokiko jaiak edo zaindariaren jaiak direla eta antolatutako programazioak eta jarduera artistikoak, eta udalerriko erakunde artistiko edo kulturalak parte hartzen duten jarduerak.

2012ko Arte eta Kultura programa osatzen duten kultur jarduerak egiteko deialdia

Deialdiaren helburua kultur jarduerak Nafarroako tokiko erakundeetan sustatzea da, eta kultur jarduerak dira: zinema, dantza, hedapena, gauzatzea, etnologia, erakusketak, antzerkia, folklorea, magia edo musika. 2011ko azaroaren 3tik 2012ko azaroaren 4a bitarte egindako jarduerak finantzatzen dira.

Laguntza horien onuradunak 1.000 eta 40.000 biztanle arteko tokiko erakundeak dira; 1.000 biztanle baino gutxiagoko tokiko erakundeak beste tokiko erakunde batzuekin adostuta kultur jarduerak aurkezten dituztenak eta orotara 1.000 biztanle baino gehiagoko biztanleriara iristen direnak, eta beren kultur jarduerak zuzenean tokiko erakundeen bidez kudeatzen dituzten erakunde edo entitateak. Deialdi horretarako, 247.000 euroko aurrekontua dago.

Deialdi honetan diru-laguntzaren gutxieneko zenbateko bat ezartzen da erakundearen biztanleria-kopuruaren arabera. Diru-laguntzak, gehienez ere, onartutako aurrekontuaren % 40koak izango dira.

Udallerriak egindako kultur jardueretatik sortutako gastua soilik lagunduko da diruz, eta kanpoan geratuko dira: garraio, janari eta ostatuko gastuak; tailer, hitzaldi eta sariak; tokiko jaiak edo zaindariaren jaiak direla eta antolatutako programazioak eta jarduera artistikoak, Eguberriari lotutako jarduerak eta udalerriko erakunde artistiko edo kulturalak parte hartzen duten jarduerak.

Eskaerak baloratzeko orduan eta laguntzaren zenbatekoa erabakitzeko orduan, batzordeak aurkeztutako programaren interesa eta programaren kalitatea aintzat hartuko ditu, aurrekontuan egin den ahalegina biztanleei dagokienez eta kultur kudeaketako teknikari bat egotea funtzionarioa edo kontratatua.

2012ko deialdi honetako berrikuntza da 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei parte hartzeko aukera ematen zaiela, baldin eta kudeatzaile batek edo kultur kudeaketako enpresa batek egindako proiektu bateratu bat aurkezten badute. Baremo baten aplikazioa ere sinplifikatu da eskaerak ebaluatzeko.

Jarduera artistikoak eta kulturalak elkarrekin antolatzeko deialdia

Diru-laguntza horiek bideratzen dira, kultur kudeaketan tekniko bat duten Nafarroako udalerrietako jarduera artistiko eta kulturalen programak (antzerkia, musika, dantza, erakusketak eta antzeko beste zenbait) antolatzen laguntzeko.

2012ko urtarrilaren 7tik abenduaren 1a bitarte egiten diren programei eragiten die, eta programetan jasotako jarduerak elkarrekin edo adostuta antolatu beharko dira, hau da, zenbait udalen artean erakunde artistiko bera duten zirkuituak eginez, proposatutako programak errentagarriak egiteko xedearekin.

Tokiko erakunde bakoitzak, gehienez ere, elkarrekin edo adostutako bi programetan parte hartu ahal izango dute. Udallerriek kultur kudeaketan funtzionarioa edo lan kontratatua den teknikari bat izan beharko dute, edo kultur zerbitzuak enpresa pribatu batekin kontratatuta izatea. Diru-laguntza horietarako 107.000 euro jarri dira.

Programa bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa haietako bakoitzean lortutako puntuazioarekin zuzenean proportzionala izango da, nahiz eta ezingo duen inoiz onartutako aurrekontuaren % 50a gainditu.

Deialdiaren ondorioetarako, diruz lagundu daitekeen gastutzat hartuko da soilik, kultur kudeaketan teknikari bat duten Nafarroako udalek antolatutako jarduera artistiko eta kulturalak egitetik sortutakoa (antzerkia, musika, dantza, erakusketak eta antzeko beste zenbait), eta kanpoan geratuko dira tokiko jaiak edo zaindariaren jaiak direla eta antolatutako jarduerak.

Aurkeztutako eskaeren balorazioan eta laguntzaren zenbatekoa erabakitzeko orduan, batzordeak programatutako jardueren interesa eta kalitatea aintzat hartuko ditu, tokiko esparruan jarduera artistiko eta kulturek zer ekarpen egiten duten eta aurrekontuari nola egokitzen diren.